

2021eko DEIALDIA

FILOSOFIA, ZIENTZIA ETA BALIOAK MASTERRA EGITEKO DIRU LAGUNTZAK

JOXE AZURMENDI KATEDRAK hiru diru laguntza emango ditu 2021-2022an Filosofia, Zientzia eta Balioak Masterra egiteko. Horietako bakoitza 5.000 euro gordinekoa izango da.

2019ko Uztailaren 7an Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak "Pentsamendu Garaikiderako Joxe Azurmendi katedra proiektua" (JAK) sortzeko, garatzeko eta mantentzeko hitzarmena sinatu zuten.

Honen helburu nagusia Joxe Azurmendiren eta baita 1956ko Belaunaldiko kideen obra eta pentsamendua ikertu, ustiatu eta transmititzea ahalbidetuko duten ekintzak sustatzea da, bai eta horietan oinarrituz euskal pentsamendua eta euskal gizarteak behar duen masa kritikoa garatzen joatea ahalbidetuko duten ekintzak sustatzea ere.

JAK-k bultzatu nahi dituen **ikerketak** **lerroak** hauek dira: 1. 1956ko Belaunaldiaren pentsamendua; 2. Nazioarteko eragina euskal pentsamenduan; 3. Euskal pentsamenduaren transmisioa; 4. Hizkuntzaren eta kulturaren teoriak; 5. Naziogintza eta estatugintza; 6. Bizikidetzak eta gogoeta etikoa; 7. Pentsamendu soziala eta kooperatibismoa; 8. Gizaberea eta gizakiaren ikuspegi berriak.

JAK-ren jardueretako bat honakoa da: "Filosofia, Zientzia eta Balioak" (FZB) masterrean Master Amaierako Lana (MAL) euskaraz eta aipatutako ikerketa lerroetako baten inguruan egiteko diru laguntzak eskaintzea". Honenbestez, eta 2021eko edizioari begira, honako hauek dira xehetasunak:

1. artikulua:

2021eko Deialdian FZB masterra egiteko hiru diru laguntza emango dira, horietako bakoitza 5.000 euro gordinekoa izango delarik (eman gabe gera daitezke).

2. artikulua:

Eskariak eta dagokion dokumentazioa e-postaz bidaliko dira jak.laguntzak@gmail.com helbidera **2021eko uztailaren 24a** baino lehen (ikus 7. artikulua: "nola eta zer bidali").

3. artikulua:

Hauek dira, eskariarekin batera, aurkeztu behar direnak: a/ FZB masterraren aurrematrikularen agiria; b/ Euskararen ezagutzaren C1 agiria edo parekoa; c/ MALaren Proiektuaren Memoria (ikus 6. artikulua: "memoriaren xehetasunak").

4. artikulua:

Diru laguntzak nori eman JAKren Batzorde Eragileak eta FZB masterreko Batzorde Akademikoak adostutako hiru kideko epaimahaiak erabakiko du **2021eko uztailaren 30ean**.

5. artikulua:

Burutuko den MAL euskaraz idatziko da eta, edukiz, JAK-ren ikerketa lerroen ingurukoa izango da (ikus gorago). Diru laguntza jasotzen duenak konpromisoa hartzen du aurkeztutako lana, bere hartan edo bertsio laburtuan, argitara emateko modu batean edo bestean.

6. artikulua:

MEMORIAREN XEHETASUNAK:

1. Proiektuaren izenburua
2. Kokatu proiektua JAK-ren ikerketa lerroen artean
3. Hitz klabeak (gehienez 5)
4. Laburpen motza (50-100 hitz)
5. Laburpen luzea (1000 hitz gehienez)
 - a/ Justifikazioa eta gaiaren garrantzia (± 100 hitz)
 - b/ Marko teorikoa eta aurrekariak (± 300 hitz)
 - c/ Ikerketaren hipotesia edo helburua (± 300 hitz)
 - d/ Metodologia (lan enpirikoa bada, datuak nola jasoko diren; lan teorikoa bada, nola garatuko den argudioa) (± 150 hitz)
 - e/ Aurreikusitako emaitzak eta ondorioak (± 150 hitz)
 - f/ Bibliografia (25 iturri gehienez)

7. Artikulua:

NOLA ETA ZER BIDALI: Hauek dira, aipatutako helbidera eta datarako (ikus 2. artikulua), bidali behar diren dokumentuak (pdf-n):

1. Proiektuaren izenburua eta memoria.
Dokumentu honetan ez da identifikaziorik agertuko.
2. Identifikazio dokumentua: Proiektuaren izenburua. Izena eta abizena.
Helbidea (postazkoa zein elektronikoa) eta telefono zenbakia.
3. Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia, Zientzia eta Balioak masterraren aurrematrikularen agiria.
4. Euskararen ezagutzaren C1 agiria edo parekoa.

Informazio gehiago: i.zabaleta-gorrotxategi@ehu.eus